



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Arrietako Udala

Arrietako herriko tabernaren ustiaketa

Arrietako Alkateak, 2017ko abenduaren 15ean, 2017/86 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bitartez hartutako erabakiaren arabera, iragarki honekin deialdi publikoa egingo da, prozedura irekiaren bitartez, eskaintza ekonomiko onenarekin, esleipenerako zenbait irizpiderekin, Arrietako herriko tabernaren ustiaketarako kontratu administratibo bereziaren esleipena egiteko, jarraian zehazten diren datuekin:

1. *Entitate esleitzaillea*

Erakundea: Arrietako Udala.

Espedientea tramitatuko duen saila: Idazkaritza.

Kontrataziorako erakundea: Alkatetza.

Kontratazioarako mahaia: Bai.

2. *Kontratuaren xedea eta exekuziorako epea*

Xedearen deskribapena: Libao 14an dagoen kokatuta herriko tabernaren ustiaketa.

Exekuziorako epea: Hiru urte.

Luzapen posibleko epea: Hiru urte.

3. *Tramitazioa, prozedura eta esleipenerako irizpideak*

Tramitazioa: Arrunta.

Prozedura: Irekia.

Esleipenerako irizpideak: Batzuk.

1) Automaikoki kalkula daitezkeen irizpideak (50 puntura arte) hauek dira:

Urteko gutxieneko kanona ezarriko da, 19.800 eurokoa, BEZ aparte. Gutxieneko kanon horren pareko eskaintzek 0 puntu izango izango dute, eta prezioa gehien hobetzen duen eskaintzari 50 puntu emango zaio. Gainerako eskaintzak aldearantziko hiruko erregelaren bidez puntuatuko dira.

2) Automatikoki kalkula ezin daitezkeen irizpideak.

— Zerbitzuaren kudeaketa proiektua (30 puntu gehiene. 30 puntu gehienez).

Zerbitzua kudeaketa Proiektua, eskaintza eta sartu nahi diren berrikuntzak adierazita.

— Hobekuntzak (20 puntu gehienez).

1. Asteko ordutegia areagotzea (atal honi 5 puntu eman ahalko zaio gehien jota.)

Gai honi dagokionez, lizitatuak orden banaketa zehaztu dute eskaintzan, eta astean-astean egingo luketen areagotzea. Ordu-banaketarik aurkezten ez duten lizitatuak prozesutik kanpo geratuko dira.

2. Hobekuntzak instalazioaren elementuetan (kanpoko berogailuak...). Atal honi 5 puntu eman ahalko zaio gehien jota.

3. Esakiniko diren zerbitzuen barietatearen areagotzea (merendolak...). Atal honi 5 puntu eman ahalko zaio gehien jota.

4. Bezeroek erabiltzekoak diren egunkarien eta aldizkarien gehikuntza. Atal honi 5 puntu eman ahalko zaio gehien jota.



4. *Eskaintzaren aurrekontua eta balio estimatua*

Kontratu honen eskaintzaren aurrekontua 23.958 eurotakoa da. Kopuru osoaren banaketa 19.800 euro gehi BEZari dagokion (%21) 4.158 eurokoa da.

5. *Behin behineko bermea*

Ez da beharrezkoa.

6. *Dokumentazioa eta informazioa jasotzea*

Erakundea: Arrietako Udala.

Helbidea: Libao auzoa, 14.

Herria eta posta kodea: 48114-Arrieta.

Telefonoa: 946 153 065.

Faxa: 946 153 322.

Webgunean: www.arrieta.net

7. *Kontratataren betebeharrak*

Kaudimen ekonomiko, finantzarioa, tekniko edo profesionala: APBOen arabera.

8. *Parte hartzeko eskaintzen aurkezpena*

— Entregatzeko azken eguna eta ordua: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita 15 egun.

— Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Pleguan jasotakoa ikusi.

— Dokumentazioa aurkezteko lekua: Arrietako Udala, Libao auzoa, 14.

9. *Interesdun informazioa*

a) Eskaintzak zabaltzea:

Erakundea: Arrietako Udala.

Helbidea: Libao, 14.

Herria: Arrieta.

Data: Pleguan zehazten dena.

Ordua: Pleguan zehazten dena.

b) Deialdiari buruzko informazioak jasotzen diren kontratatzailearen profila:

www.arrieta.udala.net

Arrietan, 2017ko abenduaren 29an. — Alkatea